

# NPB 2019

Honakoak betetzeko  
**ARGIBIDEAK ETA ARAUAK:**

---

**Oinarrizko ordainketarako  
eta loturiko  
laguntzen eskaera**

---

**Laboreen eta bazka  
azalaren aitortpena**

---



Honakoak betetzeko **ARGIBIDEAK ETA ARAUAK:**

## **Oinarrizko ordainketarako eta loturiko laguntzen eskaera Laboreen eta bazka azalaren aitorpena**

### **Nork egin behar du ESKAERA BAKARRA?**

- **Jarduneko nekazaria** izateko baldintza betetzen duten nekazari eta abeltzainek.
- Hauek eskatu daitezke:
  - Oinarrizko ordainketako araubidea.
  - Klimarako eta ingurumenerako onuragarriak diren nekazaritza jardunetarako (“greening”) ordainketa.
  - Loturiko nekazaritza laguntzak: proteina landareak, fruitu oskoldunak, kalitatezko lekaleak eta azukre-erremolatxa.
  - Loturiko abeltzaintza laguntzak: behi ume-hazleak, gizentzeko behi abereak, esne behiak, ardiak eta ahuntzak.
  - Esne behiak, gizentzeko behi abereak, ardiak eta ahuntzak hazten dituzten, eskubide bereziei eutsi zieten eta oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzeke hektarea onargarririk ez duten abeltzaintzako loturiko laguntzak.
- Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren diru laguntzen onuradunek:
  - Neurria 10: Nekazaritza eta Ingurumena, eta klima
  - Neurria 11: Nekazaritza Ekologikoa
  - Neurria 13: Natura aldetik mugatuta dauden zonaldeetarako edo mugapen espezifikokoak dituzten beste zonalde batzuetarako ordainketak

### **Non izapidetu daitezke aitorpenak?**

- Ustiatagia edo horren nekazaritza azalera gehiena dagoen probintzian edo autonomia erkidegoan.
- Eskualdeetako Nekazaritza Bulego egokietan (ENB), **ALDEZ AURRETIK HITZOR-DUA ESKATUTA.**

### **Zenbat aitorpen aurkeztu behar dira?**

- Aitorpen bakarra nekazaritza ustiatagi bakoitzeko.

### **Zer epe dago “Aldez aurreko hitzordua” eskatzeko?**

- Oro har, apirilaren 15era arte. Egun horretatik aurrera, apirilaren 30era arte, aldez aurreko hitzordua eskatu ahal izango da, baina azken egunetako eskaeren gehikuntzarengatik, **ez da bermatzen zuk aukeratutako ENBn atenderitzerik, ez eta eskaera egiteko aldian ere.** Beraz, eska ezazu lehenbailehen aldez aurreko hitzordua.

## Zer epe dago aitortena aurkezteko?

- Epea 2019ko otsailaren 1ean hasiko da.
- Epea 2019ko apirilaren 30ean bukatuko da.

## Zer gertatuko da aitortena edo eskatutako agiriak apirilaren 30a baino beranduago aurkezten badira?

- Esandako epea bukatzen den egunaren ondoko 25 egunen barruan aurkezten bada, laguntzen zenbatekoak % 1 gutxituko dira egun horretatik pasatzen den egun balioudun bakoitzeko.
- Atzerapena 25 egun baino gehiago izanez gero, eskaera onartu ezinekotzat joko da.

## Alda daitezke aitortena apirilaren 30a baino beranduago?

- Maiatzaren 31ra arte.

## Erants daitezke lurzati gehiago aldaketak egiteko aldia (maiatzaren 31ra arte)?

- Bai, oro har, tokian bertan kontrola egingo dela jakinarazi ezean.

## Aitortenean herri basorik jaso daiteke?

- Bai, baldin eta baso hori amankomunean erabiltzeko eskubidea egiaztatzen bada, erakunde titularrak egindako ziurtagiri egokiaren bidez.
- Mendi publikoak larratze bidez baino ezin dira mantendu.

## Zer agiri aurkeztu behar da aitortena izapidetzerakoan?

### A.- ORO HAR

- Pertsona fisikoa izanez gero:
  - Ezkontidearen identifikazioa
  - Ezkontzaren eraentza, hala badagokio
  - Ustiapen buruari buruzko datuak
- Pertsona juridikoa izanez gero:
  - Legezko ordezkaria
  - Izena, IFZ, jaioteguna eta bazkideen partaidetza ehunekoa.

## B.- LABOREEN AITORPENERAKO

- **2018an aitortu ziren lurzati berberak aitortzen badira:**
  - Nekazaritza lurzatiaren zerrenda, SIGPAC identifikazioarekin, kokalekua, landutako azalera hektareatan, erabileraren arabera, eta SIGPACeri dagokion azalera, labore mota; sekain-lurra ala ureztatua.
  - Lurzatiaren edukitza-araubidea:
    - Jabetza
    - Gozamina
    - Alokairua edo apartzeria: **2 ha. baino gehiago duten esparruetan loka-tzailearen edo apartzeroaren IFZ adierazi behar da**
    - Herri lurra: **Esleipen horren ziurtagiria aurkeztu behar da.**
- **Nekazari batek ez badu aitortzen SIGPAC esparru bat osorik:**
  - Grafikoki zehaztuko da eremuaren zein zati dagoen zure eskura.
- **Ureztatze laguntza duen lurzati ureztaturik aitortzen bada:**
  - Ureztatzaile elkartearen ziurtagiria, ur emakida jasotzen duena.
- **Larre lurzatiarik aitortzen bada:**
  - Mantentze mota zehaztea. Mendi publikoen gainazala larratze bidez baino ezin da mantendu.
- **ZEREAL eta OLIO-LANDAREEN eremurik aitortzen bada:**
  - Adierazi beharko da hazia ziurtatua den ala berrerabileratik datorren
- **TABAKO eta AZUKRE-ERREMOLATXAREN eremurik aitortzen bada:**
  - Barietatea adierazi beharko da
- **ARTO eremurik aitortzen bada:**
  - Adierazi beharko da ereindako barietatea genetikoki eraldatua den ala ez.
- **PROTEINADUN LABORE eremurik aitortzen bada:**
  - Adierazi beharko da ea lurzattia hazia ekoizteko den.
- **BARATZE LABORE ETA FRUTA ARBOLA eremurik aitortzen bada:**
  - Baratze laboreen kasuan, zein espezie jarriko den adierazi beharko da.
  - Fruta arbolen kasuan, espeziea, barietatea eta landaketa urtea adieraziko dira.
- **Nahitaezkoa da ustiategiko lurzati guztiak aitortzea**
- **Herri basoetako bazka eremuak:**
  - Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzutik aterako da.
- **Lurzatiaren hautagarritasuna:**
  - Araudiaren arabera hautagarriak dira nekazaritza jarduera egiten den lurzattia, nekazaritza jardueratzen honako hau hartuz: nekazaritzako produktuen

ekoizpena, hazkuntza edo lantzea, uzta biltzea, jeztea, abere hazkuntza, edo nekazaritza eremuak bazkatzeko edo lantzeko nekazaritza eta ingurumen baldintza egokietan mantentzea.

- Baldin eta lurzati batzuetan mantentze lana (lurra lantzea, belarra moztea, saskiak kentzea) aitortu bada behin eta berriz bost urte jarraian, a priori ez da onartuko. Horrek lugorrirei eta larratze bidez mantendu ez diren bazka azalerei eragiten die.

- **Onuradun orok baldintzen arauetan ezarritakoa bete beharko du.**

## **C.- KLIMARAKO ETA INGURUMENERAKO ONURAGARRIAK DIREN NEKAZARITZA JARDUNEN ("GREENING") ORDAINKETARAKO**

- **Laboreen dibertsifikazioa:**

- Oro har, ustiatetik lur landua 10 eta 30 hektarea bitartean dagoenean, gutxienez bi labore desberdin lantzea, horietako nagusiak lur landu horren % 75 baino gehiago izan gabe.
- Oro har, ustiatetik lur landua 30 hektarea baino gehiago denean, gutxienez hiru labore desberdin lantzea, horietako nagusiak lur landu horren % 75 baino gehiago izan gabe, eta bi nagusiek batera haren % 95 baino gehiago ez duelik.

- **Dauden larre iraunkorren mantentzea**

- **Interes Ekologikoko Azalerak (IEA) izatea**

- Oro har, ustiatetik lur landua 15 hektarea baino gehiago denean, azalera horren % 5 gutxienez interes ekologikoa duen eremua izan behar da.
  - Lugorria (ponderazio koefizientea: 1)
  - Ezti landareetarako lugorriak (ponderazio koefizientea: 1,5)
  - Eremu oihaneztatuak (ponderazio koefizientea: 1)
  - Basonekazaritzarako erabiltzen diren lurak (ponderazio koefizientea: 1)
  - NFL - Nitrogenoa Finkatzen duten Laboreak (ponderazio koefizientea: 1): babarruna, txitxirioa, dilista, ilarra, babak, eskuzuria, algarrobo-leka, titarroak edo almorta, txirta edo zalkea, eruak, ailorbea, aixkola, alpapa, astorkia, zulla, hirusta, soja eta kakahuetea eta krotalaria.
  - NFLen eta bestelako laboreen nahastura (ponderazio koefizientea: 1), lehenengoak nagusi baldin badira (adib. zalkea-oloa, zalkea-garagarra, e.a.).
- Interes ekologikoko azaleretan, debekatuta dago edozein motatako produktu fitosanitario erabiltzea.

INTERES EKOLOGIKOKO AZALERAK (IEA)	PONDERAZIO KOFEFIZIENTEA
Lugorria	1
Nitrogenoa Finkatzen duten Laboreak (NFL)	1
Eremu oihaneztatuak	1
Basonekazaritzarako erabiltzen diren lurrak	1
<i>Miscanthusa</i> duten azalerak	0,7
<i>Silphium perfoliatuma</i> duten azalerak	0,7
Ezti landareetarako lurgorri utzitako azalerak	1,5

## D.- LOTURIKO LAGUNTZAK NEKAZARIEI ORDAINTZEKO

- Oro har, gutxieneko azalera ustiategiko ha 1 izango da sekain-lurretan, eta 0,5 ha lur ureztatuetan.

### D.1. PROTEINA LANDAREEKIN LOTURIKO LAGUNTZA

**Proteaginosoak** (ilarrak, babak, eskuzuri gozoa), **lekadunak** (txirta edo zalkea, eruak, algarrobo-lekak, titarroak edo almortak, ailorbea, , aixkola, alpapa –sekain-lurretan bakarrik– astorkia eta zulla) eta **oleaginosoak** (ekilorea, koltza, soja, kamelina, kartamoa) ekoizten dituztenentzat, **haien helburua abereen jana izatea baldin bada**.

- Laguntza honetatik salbuetsita gelditzen dira hazia lortzera bideraturiko azalerak.
- Lantzen den espeziea eta barietatea zehaztu behar dira

### D.2. FRUITU OSKOLDUNEKIN ETA ALGARROBO-LEKEKIN LOTURIKO LAGUNTZA

Arbendolondo, hurrondo eta algarrobo sailak dituzten nekazariantzat, hektareako gutxienez 80, 150 eta 30 arbola baldin badituzte, hurrenez hurren.

- Gutxieneko azalera, laguntza eskaeraren gaia den lurzati bakoitzeko. 0,1 ha.
- Gutxieneko azalera, laguntza eskaeraren gaia den ustiategi bakoitzeko. 0,5 ha.
- Hektarea bakoitzeko arbola kopurua adierazi behar da.

### D.3. KALITATEZKO LEKALEEKIN LOTURIKO LAGUNTZA

**Gizakien janaria izateko** kalitatezko lekale hauek ekoizten dituzten nekazariantzat:

- Txixirioa, dilista edo babarruna nekazaritza ekologikoaren esparruan.
- Arabako Babarrun Pintoa eta Arabako Babarrun Arrozkara, kalitatezko deitura baten pean.

#### D.4. AZUKRE-ERREMOLATXAREKIN LOTURIKO LAGUNTZA

Industriarako azukre-erremolatxa ekoizten duten nekazariantzat, hektareako gutxienez hazi unitate bat erabiltzen badute.

- Barietatea zehaztu behar da
- Azukre industriarekiko hornidura kontratuaren edo hori eskatzeko baimenaren kopia aurkeztu behar da.

### E.- LOTURIKO LAGUNTZAK ABELTZAINEI ORDAINTZEKO

Ustiatagia osatzen duten eta abereak mantenduko dituen **ekoizpen unitateen REGA kode guztiak aitortu behar dira.**

**Ustiatagiaren jabe** izaten jarraitu beharko duzu animalien **hautagarritasun epeak** dirauen bitartean eta, beti ere, **harik eta eskaera aldatzeko epemugara arte.** Salbuetsita gelditzen dira aldaketaaldiaren bukaera aurreko titulartasun aldaketak.

Abeltzainen laguntzen ondorioetarako:

- a) **Gazte abeltzainak:** gazteentzako laguntzaren baldintzak betetzen dituztenak.
- b) **Jarduera hasten duen abeltzaina:** erreserba nazionalera sartzeko baldintzak betetzen dituztenak.

**Identifikazio eta Erregistro** araudia **bete** beharko du **hauta daitekeen animalia** orok.

#### E.1. BEHI UME-HAZLEAK

ABIEn errolatutako **behi ume-hazle hauek** izango dira hautagarriak:

- Eskaera urtearen apirilaren 30aren aurreko **20 hilabeteetan umea egin dutenak.**
- **Haragitarako arraza** batekoak edo haragitarako arraza batekin **gurutzatuak** izatea, eta haragia ekoizteko txekorrak haztekoak izatea (frisiarrak eta beraiekin gurutzatuak eta batez ere esnetarako direnak kanpo daude).
- **Urtarrilaren 1ean, apirilaren 30ean eta tarteko beste bi egunetan** ustiatagian izatea. Konputatu beharreko abereak **4 egun horietan bertan daudenak** izango dira. **Gazte abeltzainen eta jarduera hasten duten abeltzainen kasuan,** baldin eta urtarrilaren 1a baino geroago sartzten badira, ustiatagian **apirilaren 30ean** daudenak izango dira.

Aurreko baldintzak betetzen dituzten (salbu eta erditzea) eta urtarrilaren 1ean 8 eta 36 hilabete bitartekoak diren txahalak onartuko dira **%15eraino.**

Abereak dauden ustiatagiak **REGAn errolatuta** egon beharko dira sailkapen zootekniko honekin:

- “haragi ekoizpenerako ugaltzea”
- “ekoizpen mistorako ugaltzea” edo
- “txahalen aurrerakoien hazkuntza”

**Esnerik saltzen badu,** esne errendimenduaren **ziurtagiri ofiziala** aurkeztu beharko du, errendimendu hori 6.500 kg baino handiagoa denean.

## E.2. GIZENTZEKO BEHI ABEREA

ABIEn erroldatutako behi abere hauek izango dira hautagarriak:

- **6 eta 24 hilabete arteko adina** dutenak.
- Aurreko urteko **urriaren 1etik** eskaera egiten den urteko **irailaren 30era arte** aldi horretan bertan **hiltzeko edo esportaziorako atera** diren onuradun **ustiategian** (edo gizendegi komunitarioan) gizenduak.
- Ustiategian **sartu diren egunetik** hiltzeko edo esportaziorako **atera diren egunera arte, gutxienez 3 hilabeteko** tarte egon beharko da.
- **Gutxienez 3** abere hautagarri.

Abereak kokaturik dauden **ustiategiak** abereak **hiltze gira** edo **esportaziorako** eraman baino lehenago egon ziren **azkenak** izango dira, eta REGAn erroldatuta egon beharko dira **sailkapen zootekniko** honekin:

- “haragi ekoizpenerako ugaltzea” edo
- “esne ekoizpenerako ugaltzea” edo
- “ekoizpen mistorako ugaltzea” edo
- “gizenzea edo gizendegia”

**Beste ustiategi batetik etorritako txekorrek baldin badira, “gizentzea edo gizendegia” sailkapena** bakarrik izango da balioduna.

**Irteera** mugimendua **bitarteko ustiategi baterakoa** (tratularia edo elkartze zentroa, REGAn holakoan gisa erroldatua) izan bada eta **horretatik hiltzeko edo esportaziorako ateratzen badira**, bitarteko ustiategian ezin izango dira **15 egun baino gehiago** egon.

## E.3. ESNE BEHIAK

ABIEn erroldatutako **behi** hauek izango dira **hautagarriak**:

- **Esnetarakoak** izatea, frisiar arrazakoak edo horrekin gurutzatuak edo eskumena duen agintaritzak zehaztutako esnetarako beste arraza batzuetakoak.
- **24 hilabete edo gehiago izatea** eskaera urtearen apirilaren 30ean.
- **Urtarrilaren 1ean, apirilaren 30ean eta tarteko beste bi egunetan** ustiategian izatea. Konputatu beharreko abereak **4 egun horietan bertan daudenak** izango dira. **Gaspe abeltzainen eta jarduera hasten duten abeltzainen kasuan**, baldin eta urtarrilaren 1a baino geroago sartzen badira, ustiategian **apirilaren 30ean** daudenak izango dira.

Abereak dauden ustiategiek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- REGAn erroldatuta egotea **sailkapen zootekniko** honekin:
  - “esne ekoizpenerako ugaltzea” edo
  - “ekoizpen mistorako ugaltzea” edo
  - “txahalen aurrerako hazkuntza”.
- Erosleei **esne emateak** edo zuzeneko salmenta gutxienez **6 hilabetez** egin izana aurreko urteko **urriaren 1etik** eskaera egiten den urteko **irailaren 30era** arteko aldi, edo aurreko urtean **zuzeneko salmenten aitorpena** aurkeztu izana.



#### E.4. ARDIAK

Hautagarriak izango dira:

- Nahitaezko errolda aitorpenaren arabera **ugaltzaile bezala mantendutako ardiak**, eskaera aurkezten den urteko **urtarrilaren 1ean** behar den bezala **identifikatuta eta erregistratuta** baldin badaude. **Gaszte abeltzainen eta jarduera hasten duten abeltzainen kasuan**, baldin eta urtarrilaren 1a baino geroago sartzen badira, ustiatégian eskaera **aldatzeko epemugan** eskuragarri egon den azken errolda aitorpearen arabera daudenak izango dira.
- Eme hautagarrien **gutxieneko kopurua  $\geq 30$  abere**

Abereak dauden ustiatégiek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- REGAn erroldatuta egotea **sailkapen zootekniko** honekin:
  - “haragi ekoizpenerako ugaltzea” edo
  - “esne ekoizpenerako ugaltzea” edo
  - “ekoizpen mistorako ugaltzea”
- Ustiatégiko **irteera mugimenduen atalasea eme hautagarri bakoitzeko 0,6 arku-me** izatea gutxienez.

Edo, bestela, **gutxienez eme ugaltzaileko eta urteko 80 litroko ekoizpena** izatea, “ekoizpen mistorako ugaltzea” eta “esne ekoizpenerako ugaltzea” sailkapen zooteknikoa duten ustiatégietarako.

Kontuan hartu beharreko aldia izango da eskaeraren **aurreko urteko ekainaren 1etik eskaeraren urteko maiatzaren 31ra bitartekoa**, arkumeak ateratzeko eta **esnea erosleei emateko**.

**Esnea zuzenean saldu** nahi izanez gero, eskaeraren aurreko **urtean** eginikoa izango da.

**Aurreko urteko ekainaren 1aren ondoren jarduera hasiz gero edo titulartasuna aldatuz gero**, hainbanatu egingo dira gutxieneko atalaseak.

#### E.5. AHUNTZAK

Hautagarriak izango dira:

- Nahitaezko errolda aitorpenaren arabera **ugaltzaile bezala mantendutako ahuntzak**, eskaera aurkezten den urteko **urtarrilaren 1ean** behar den bezala **identifikatuta eta erregistratuta** baldin badaude. **Gaszte abeltzainen eta jarduera hasten duten abeltzainen kasuan**, baldin eta urtarrilaren 1a baino geroago sartzen badira, ustiatégian eskaera **aldatzeko epemugan** eskuragarri egon den azken errolda aitorpearen arabera daudenak izango dira.
- Eme hautagarrien **gutxieneko kopurua  $\geq 10$  abere**

Abereak dauden ustiatégiek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- REGAn erroldatuta egotea **sailkapen zootekniko** honekin:
  - “haragi ekoizpenerako ugaltzea” edo
  - “esne ekoizpenerako ugaltzea” edo
  - “ekoizpen mistorako ugaltzea”

- Ustiatetikoko irteera mugimenduen atalasea eme hautagarri bakoitzeko 0,6 antxume izatea gutxienez.

Edo, bestela, **gutxienez eme ugaltzaileko eta urteko 200 litroko ekoizpena izatea.**

Kontuan hartu beharreko aldia izango da eskaeraren **aurreko urteko ekainaren 1etik eskaeraren urteko maiatzaren 31ra bitartekoa**, antxumeak ateratzeko eta **esnea erosleei emateko.**

**Esnea zuzenean saldu** nahi izanez gero, eskaeraren aurreko **urtean** eginikoa izango da.

**Aurreko urteko ekainaren 1aren ondoren jarduera hasiz gero edo titulartasuna aldatuz gero**, hainbanatu egingo dira gutxieneko atalaseak.

## E.6. ESKUBIDE BEREZIAK HEKTAREA ONARGARRIRIK GABE

**2014an eskubide bereziak** zituzten eta oinarrizko ordainketarako eskubideak aktibatzen **hektarea onargarririk ez duten** esne behi, gizentzeko behi abere, ardi eta ahuntzen abeltzaintzat.

Eskubide bereziak **dituztenek, 2014an bestelako eskubideak ere bazituzten, ez dute aukera hau** izango.

Arlo bakoitzerako hauta daitezkeen abereak loturiko laguntzetako berberak izango dira.

## F.– NEKAZARI GAZTEENTZAKO ORDAINKETA

- Oinarrizko ordainketarako araubidearen eskubideak izatea eta eskubide horiek aktibatuta edukitzea.
- Ez izatea 40 urte baino gehiago oinarrizko ordainketarako eskubideen lehenengo eskaera aurkeztu den urtean.
- 2014ko urtarrilaren 1a baino geroago alta eman izana nekazaritza jarduerari dagoion Gizarte Segurantzako araubidean.
- Eskaera bakarra aurkezteko epea bukatzean, landa garapenerako programaren bateko eremuan lehenengo instalaziorako dirulaguntza ematearen aldeko espedientea izatea, edo bestela, eskola prestakuntzako irizpideak betetzea edo esperientzia profesionala izatea.
- Pertsona juridikoaren kapital sozialean daukan partaidetza haren kapital sozial guztiaren % 50 baino gehiago izatea, eta han botorako eskubideen erdia baino gehiago izatea.

## BERRIKUNTZAK

- Mendi publikoak larratze bidez baino ezin dira mantendu.
- Ustiapen buruari buruzko datuak.
- Proteinadun laboreekin loturiko laguntza: Laguntza honetatik salbuetsita gelditzen dira hazia lortzera bideraturiko azalerak.